ENETZ EZENARRO ARRIOLA (1, guztira 1)
Representante Legal
Sinaduraren data: 30/10/2026
HASH: bd3959dcf8be13c489ea4b6cada1ec44

ESPEDIENTEA 351/2026

MENDAROKO UDALEKO GOÑATI TABERNA-KAFETEGIAREN USTIAPENERAKO EMAKIDA

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

1. Xedea

Preskripzio Teknikoen Plegu honen xedea da Mendaroko Udalaren titulartasuneko Goñati taberna-kafetegiaren ustiapena gauzatzeko bete beharreko baldintza tekniko, funtzional, sozial eta linguistikoak ezartzea. Ustiapenaren helburua izango da ostalaritza-zerbitzu egonkorra, kalitatezkoa eta herritarren beharretara egokitua eskaintzea, instalazioen erabilera egokia, kontserbazioa eta funtzio soziala bermatuz.

2. Zerbitzuaren izaera eta helburu soziala

Goñati taberna-kafetegia herritarren topagune irekia, integratzailea eta komunitatearen kohesioa sustatzeko gunea izango da. Horrenbestez, ustiapena gauzatzean arreta berezia jarriko zaio herritarren arteko bizikidetzari, irisgarritasunari, euskararen erabilerari, pertsonen arteko berdintasunari, aniztasunarekiko errespetuari, herritarren parte-hartzeari eta udal-jarduerekin lankidetzan jarduteari.

Esleipendunak establezimenduaren izaera sozial hori errespetatu beharko du une oro, bere jarduera garatzean interes publikoaren eta zerbitzuaren kalitatearen alde jardunez.

3. Baliabideak

Ustiapena hasterako instalatuta izango ditu udalak taberna-kafetegiaren funtzionamendu normalerako beharrezkoak diren lanabes eta tresna batzuk. Esleipendunak ustiaketaren xedeko lokalean egun dauden ondasun higikorrak erabili ahal izango ditu (ikus eranskina). Ondasun horiek kontratua sinatzen denean jarriko dira esleipendunaren esku, eta horren guztiaren akta jasoko da.

Esleipendunak egoera onean zaindu eta mantendu beharko ditu ustiapenari lotutako instalazio, altzari, ekipamendu, tresneria eta makinaria guztiak. Horretarako beharrezkoak diren mantentze-lan arruntak eta konponketak bere kontura egingo ditu, legez eta ondasunaren izaeragatik udalari dagozkionak salbu.

Halaber, tabernako baxera, beirateria, mahai-tresnak eta ustiapen arrunterako beharrezkoak diren antzeko elementuen mantentzea eta ordezkapena esleipendunaren kontura izango da.

Esleipendunak, bere kontura eta arriskuaren baitan, beharrezkotzat jotzen dituen elementuak jarri ahal izango ditu, instalazioetan obra edo aldaketarik ekartzen ez duten bitartean.

Udalaren aurretiazko eta berariazko baimenik gabe ezin izango da instalazioetan obrarik egin, ez ekipamendu finkorik aldatu edo kendu ere.

Baliozkotze Kod.: 723JG45L464HEHQYZHRCNP936
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 13

Era berean, esleipendunaren kontura joango dira altzari berriak erostea eta daudenak mantentzea edo birjartzea, betiere, dagoen estetika mantenduz eta udalaren oniritziarekin.

4. Zerbitzuaren kudeaketa

Instalazioa taberna-kafetegia jarduerarako soilik erabiliko da, agiri honetan eta jarduera horretarako indarrean dagoen araudian baimendutako modu eta ordutegian.

Jabari publikoko ondasuna jabetza-eskubidea izan gabe erabiliko da, hirugarrenei kalterik egin gabe.

Zerbitzua eteteko eta, hala badagokio, ixteko agindu ahal izango du udalak, baldin eta esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik zerbitzua gaizki ematen bada eta erabiltzaileen osasungarritasunerako, higienerako eta segurtasunerako beharrezko neurriak hartzen ez badira.

5. Enpresako pertsonala

Enpresa esleipendunak baldintza teknikoen plegu honetan zehaztutako lanak egiteko beharrezko pertsonala izango du, bai langile kopuruari dagokionez eta bai bete behar dituzten baldintzei dagokienez.

Langile horien buru arduradun bat egon beharko da, koordinazio funtzioak beteko dituena.

Udalak bidezko deritzon ohar guztiak arduradun horri zuzenduko dizkio.

Kontratua formalizatu aurretik, adjudikaziodun izateko proposatutako pertsonak edo erakundeak zerbitzuari atxikiko zaizkion langileen zerrenda aurkeztuko du, pertsona bakoitzaren eginkizunak adierazita eta koordinazioa nork egingo duen identifikatuta. AKPAk eskatzen duen dokumentazioa ere aurkeztuko du, jendaurreko zuzeneko arretako langileen hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko. Kontratua gauzatzen den bitartean, informazio hori eguneratuta edukiko du, eta ordezkapenak Udalari jakinaraziko dizkio, AKPAren 20. klausularen arabera.

Esleipendunak ezingo du inolaz ere pertsonal gabezia argudiatu plegu honetan adierazten diren zerbitzuak bertan behera uzteko edo atzeratzeko. Une oro izan beharko du horien exekuzioa aurrera ateratzeko beharrezko pertsonala.

Enpresa esleipendunaren pertsonalak ez du inolaz ere izango inongo lan, kontratu, funtzio edo beste motako loturarik udalarekin.

6. Zerbitzuaren deskribapena

Esleipendunak taberna-kafetegi eta sukalde zerbitzua eman behar du.

Zerbitzua Mendaroko herriko Enparantza 14 helbidean dagoen lokalean emango da. Baita udalak berariaz baimendutako terraza eremuan ere.

Baliozkotze Kod.: 723JG45L464HEHQYZHRCNP936
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 13

Esleipendunak, zerbitzua modu egokian eskaintzeko beharrezko giza baliabide eta baliabide materialak izango ditu. Horrenbestez, hura modu egokienean garatzeko beharrezko pertsonal kualifikatua izango du.

7. Zerbitzuaren edukia

Esleipendunak taberna-kafetegi eta sukalde zerbitzua eskiniko die egunero bezeroei. Hauek izango dira gutxienez egunero eskaini beharrekoak: edariak, pintxoak, gosariak, ogitartekoak, razioak eta plater konbinatuak. Baita taldeentzako bazkari edo afariak ere. Eguneko menua ere eskaini ahal izango da.

Esleipendunak eskaintza gastronomikoan sasoiko produktuak egotea sustatuko du. Astean behin, gutxienez, eskaintza edo proposamen espezifiko bat egingo du produktu horiekin, eta bezeroentzat identifikatuko ditu. Hornitzaileen hautaketa ez da haien bizilekuaren edo produktuen jatorri geografikoaren mende egongo.

Esleipendunak eramateko prestatutako janariak eskaintzeko aukera izango du, bereziki eguneko plateren edo antzeko produktuen kasuan.

8. Zerbitzuaren antolaketa

Eskaintzen aurkezpenean, lizitatzaileek beharrezko deritzoten barne antolaketaren planteamendua egingo dute, plegu honetan ezarritakoa betetzeko.

Nolanahi ere, aldaketak egin ahal izango dira, gerta daitezkeen edo plantea daitezkeen egoeren arabera.

Udalarekin harreman azkarra izateko lizitatzaileak informazio bidalketak egin beharko ditu honako maiztasunarekin:

- Berehalako informazioa

  Presazko bidetik bidaliko da, ezohiko gertakari bat jasotakoan.

- Urteko informazioa

  Urtero urte hasieran entregatu beharko da (urtarrilaren 31a horretarako azken eguna izanik) memoria xehatu gisa, eta ondorengoak jaso beharko ditu:

  - Zerbitzuan zehar edo Ingurumen Kudeaketa Sistemarekin izan diren gertaerak edo aipatzeko moduko kontuak.
  - Instalakuntzetan gertatutako kalteak, konpondu diren edo ez adierazita, eta konpondu badira nola konpondu diren
  - Hobekuntza proposamenak.

Baliozkotze Kod.: 723JG45L464HEHQYZHRCNP936
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 13

- Egindako gastuak aipatzen diren balantze ekonomikoa (pertsonala, materiala, erosketak, makinaria, kudeaketa eta bestelakoak zehaztuz) eta zerbitzua dela eta izandako diru sarrerak.

- Argindar, propano eta uraren urteko kontsumoa, dagokien fakturen kopiaren bidez.

- Kontratatutako langileak eta haietako bakoitzaren kontratuaren kopia, eta baita ere, dagozkion TCak aurkeztuz.

Berehalako informazioa posta elektronikoz bidali ahal izango da, edo baita telefonoz edo whatsapez ere. Urteko txostena, ordea, erregistro bidez aurkeztu beharko da.

9. Instalazioen erabilera

Esleipendunak kontratuaren xedeari lotutako jardueretarako baino ez ditu erabiliko udal-instalazioak, eta erabilera hori zuhurtziaz, arduraz eta ondasun publikoaren kontserbazioa bermatuz gauzatuko da.

Lehena aipatutako moduan, tabernari lotutako terraza udalak ezarritako kokapenaren arabera erabiliko da. Terrazaren konfigurazioan edo okupazio-eremuan edozein aldaketa egiteko, udalaren aurretiazko eta berariazko baimena beharko da.

10. Garbitasuna eta higienea

Esleipendunak bere gain hartuko ditu tabernaren, komunen, terrazaren eta ustiapenari lotutako gainerako espazioen garbiketa lanak. Instalazio guztiak une oro higiene-, osasun- eta garbitasun-baldintza egokietan mantendu beharko dira.

Ostalaritzako jarduerari aplikagarri zaizkion osasun-arauak, elikagaien manipulazioari buruzko araudia eta sektoreari dagozkion gainerako xedapenak zorrotz bete beharko dira.

Halaber, esleipendunak bere kontura eskuratuko ditu jardueraren garapenerako beharrezkoak diren garbiketa produktuak eta bestelako kontsumigarriak.

Kafetegiko langileak behar bezala jantziko dira. Laneko arropa garbia eduki behar da.

Egoki ikusi ezkero laneko uniforme edo laneko arropa formala eraman ahal izango da eta horrek esleipenerako puntuatuko du.

11. Hondakinen kudeaketa eta ingurumena

Esleipendunak jarduerak sortutako hondakin guztiak behar bezala kudeatu beharko ditu, hondakinen arloko indarreko araudiaren eta udalak ezarritako Bilketa sistemaren arabera.

Horretarako gaikako Bilketa egingo da, bereziki papera eta kartoia, ontzi arinak, beirazko ontziak, materia organikoa, erabilitako olioa, pilak eta bereizita kudeatu beharreko gainerako

Baliozkotze Kod.: 723JG45L464HEHQYZHRCNP936
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 13

hondakin guztiak bereiziz. Gutxienez edukiontzi urdina (paper eta kartoientzako), horia (enbase arinentzako), marroia (organikoentzako) eta grisa (errefusarentzako) eduki beharko ditu.

Era berean, bezeroekin biodegradagarriak ez dien plastikozko poltsak edo ontziteria erabiltzea saihestuko du, eta poltsak eta baxera konpostagarriak edota baso kudeaketa jasangarrietatik (FSC edo PEFC zigiluarekin) datozen paperezkoak lehenetsiko ditu eramateko janarietarako.

Plastikozko lastotxoak erabiltzea ere debekatua egongo da. Konpostagarriak izan beharko dute.

Alde horretatik, plastikoaren sorrera murrizteko, iturriko ura eskaini beharko die bezeroei beirazko botila edo pitxer berrerabilgarrietan, gutxienez, bertan otordua egiten duten bezeroei.
Erabilitako olioa baimendutako kudeatzaileen bitartez kudeatuko du.

Hondakinak behar bezala kudeatzeaz gain, esleipendunak beharrezko ekintzak egin beharko ditu ingurumen-inpaktua murrizteko: uraren kudeaketa jasangarria izango da, esaterako, eta kontsumoa ahal den heinean murriztuko da.

Esleipendunak bere jardueragatik aplikagarriak zaizkion ingurumen-arloko lege-baldintzak bete beharko ditu. Udalak, beharrezkoa izanez gero ur eta energiaren (argindarra eta propanoa) kontsumoa eta hondakin mota bakoitzaren sorrera eskatuko dio esleipendunari, hornitzaile bakoitzaren fakturen edo formulario propioen bidez.

12. Komunak eta hauen erabilera publikoa

Tabernako komunak erabilera publikoko komun gisa egongo dira jendearen eskura establezimendua irekita dagoen bitartean. Horiek erabiltzeko ez da beharrezkoa izango establezimenduan kontsumorik egitea.

Esleipendunak komunen garbitasuna, higienea, irisgarritasuna eta funtzionamendu egokia bermatu beharko ditu une oro.

13. Hizkuntza-baldintzak

Esleipendunak bermatu beharko du herritarrek hizkuntza ofizialak erabiltzeko dituzten eskubideak errespetatzen direla zerbitzua ematean.

Horretarako, zerbitzua ematen duten pertsonak euskaraz arreta eskaintzeko gai izango dira, eta, gutxienez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 mailaren pareko ahozko gaitasuna edo baliokidea dutela egiaztatu beharko dute, kontratuaren xede diren eginkizunak euskaraz normaltasunez betetzeko.

Kontratua indarrean dagoen bitartean zerbitzua emango duten langileetan aldaketarik gertatuz gero, langile berriek ere aurreko paragrafoan ezarritako hizkuntza gaitasuna bete beharko dute.

Baliozkotze Kod.: 723JG45L464HEHQYZHRCNP936
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 13

Herritarren arretan lehen hitza euskaraz egingo da eta erabiltzaileek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean artatuak izateko eskubidea izango dute.

Establezimenduko errotulu, kartel, seinale, menu, ordutegi, ohar eta gainerako komunikazio-elementuetan euskarak lehentasunezko presentzia izango du, udalaren hizkuntza irizpideekin bat etorriz.

Hizkuntza paisaia ez-idatzian (irratia, telebista, musika etab.) ere euskararen normalkuntzaren aldeko neurriak hartuko dira.

14. Ordutegia

Esleipendunak, gutxienez, honako irekiera ordutegia bermatu beharko du: astelehenetik ostegunera eta igandeetan 8:00etatik 21:00etara, eta ostiral, larunbat eta jai egun bezperetan 8:00etatik 00:00etara.

Establezimenduaren gehieneko irekiera- eta itxiera-ordutegia aldiz honakoa izango da:

1. Neguan: astegunetan 6:00-23:00 eta ostiral eta jai bezperetan 6:00-00:30.
2. Udan: astegunetan 6:00-23:30 eta ostiral eta jai egunetan 6:00-01:00.

Aurreko paragrafoan ezarritako gehieneko ordutegiak ez du esan nahi esleipendunak ordutegi horretara arte ireki behar duenik, baina betiere, plegu honetan gutxieneko zerbitzu-ordutegi gisa ezarritakoa bete beharko du.

Udalak, indarreko araudiaren arabera, jai patronalek, beste ospakizun edo turismo-intereseko ekitaldiek eraginda ordutegi berezia edo luzapena baimentzen badu, esleipendunak baimen horren baldintzak bete beharko ditu. Terraza edo antzeko kanpo-instalazioen ordutegia udalaren lizentzian edo baimenean zehaztutakoa izango da.

Esleipendunak ezin izango du jarduera-lizentzian baimendutakoaz bestelako jarduerarik egin, ezta jarduera berezi bati dagokion ordutegia aplikatu ere, horretarako administrazio-baimen egokia izan gabe.

15. Egutegia eta atseden-egunak

Zerbitzuaren jarraitutasuna eta udalerriko jarduera sozial, kultural eta turistikoaren beharrei erantzuteko, esleipendunak establezimendua irekita eduki beharko du asteburuetan, jaiegunetan eta jaiegun-bezperetan, bai eta ondoren adierazitako egun eta aldietan ere:

- Santa Ana jaietan.
- Kontzezio Azokaren egunean.
- Inauterietan.
- Gabonetako haur-oporraldian.
- Aste Santuan eta Pazko Astean.
- Uztail eta abuztu osoan.
- Udalak, behar bezala justifikatuta, berezitzat edo interes publikokotzat jotzen duen beste edozein egun edo alditan.

Baliozkotze Kod.: 723JG45L464HEHQYZHRCNP936
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 13

Esleipendunak astean atseden-egun bat hartu ahal izango du astelehenetik asteazkenera bitartean, Udalarekin aurretik adostuta. Atseden-egun hori aurreko paragrafoan aipatutako irekiera nahitaezko egun edo aldiren batekin bat badator, Udalarekin adostuta aste bereko beste egun batean hartu ahal izango da.

Establezimendua astean behin itxi ahal izango da, astelehenetik asteazkenera, Udalarekin adostu ondoren. Atseden-eguna nahitaez ireki beharreko egun edo aldi batekin bat badator, aste bereko beste egun batera aldatu ahal izango da, Udalarekin adostu ondoren, betiere aukeratutako eguna nahitaez ireki beharrekoa ez bada.

Asteko atsedenaz gain, establezimenduak urtean gehienez hemezortzi (18) egun itxi ahal izango ditu oporrengatik. Asteko atseden-egunak ez dira hemezortzi egun horietatik kenduko, oporraldiarekin bat etorri arren.

Oporrengatiko itxiera jarraitua ezin izango da ondoz ondoko hamabi (12) egun naturaletik gorakoa izan, aldi horrekin bat datozen asteko atsedenaldiak barne.

Asteburuen nahitaezko irekieraren salbuespen gisa, urtean asteburu bakarra itxi ahal izango da oporrengatik: larunbata eta igandea. Urteko beste ezein larunbat edo igande ezingo da oporrengatik itxi.

Oporrengatiko itxiera ezingo da bat etorri atal honetan ezarritako gainerako nahitaezko irekiera-egun eta -aldiekin.

Oporren datak aldez aurretik jakinaraziko zaizkio Udalari, eta Udalarekin koordinatuko dira, baldintza horiekin eta zerbitzuaren jarraipenarekin bateragarriak diren egiaztatzeko.

16. Hornidurak eta ustiapen-gastuak

Esleipendunaren kontura izango dira ustiapen arruntari lotutako gastu guztiak, bereziki, zerga-gastuak, ur-, argindar-, eta gas-kontsumoak, garbiketa produktuak, kontsumigarriak eta jardueraren garapen arrunterako beharrezkoak diren gainerako baliabide materialak.

Jardueraren garapenean udalari edo hirugarrenei eragindako kalteak ere ordaindu beharko ditu esleipendunak.

17. Informazioa eta iragarkiak

Establezimenduan udalak herritarren intereskotzat jotzen duen informazioa jartzeko espazio bat egongo da, erabiltzaileentzat ikusgai dagoen tokian.

Zerbitzuaren ordutegiaren berri ematen duten kartelak jarriko ditu esleipendunak establezimenduaren ageriko toki batean, beti ere establezimenduari dagokion ostalaritza kategoriak baimendutakoaren barruan.

Alkoholdun edari edo tabakoaren iragarkiak espresuki debekatuta daude.

Kartako plateretan ageriko leku batean alergenoei buruzko informazioa jarriko da.
Dokumentazioan, publizitatean, irudietan edo komunikazio-materialetan ezingo da hizkera sexistarik erabili, ezta emakumeen edo beste pertsona edo kolektibo batzuen diskriminazioa edo estereotipoak sustatzen dituen edukirik ere.

Baliozkotze Kod.: 723JG45L464HEHQYZHRCNP936
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 13

18. Ustiapenaren arau osagarriak

Esleipendunak ostalaritza-establezimenduei aplikagarri zaizkien arau guztiak bete beharko ditu, bereziki, osasun-, segurtasun-, gizarte segurantza-, irisgarritasun-, kontsumo- eta jarduera-arloan indarrean daudenak, langileekin eta publikoarekin duen harremanetan. Langile guztiek, besteak beste, manipulatzaile-txartela izan beharko dute.

Esleipendunak jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikagarri zaizkien arauak bete beharko ditu, bereziki zaratari, osasun-baldintzei eta hondakinen kudeaketari dagozkienak.

Tabernako prezioak bi motatakoak izango dira: bata jubilatuen elkarteko bazkideena edo hitzartuena eta bestea orokorra kalekoentzat. Esleipendunak tabernako janari, edari eta zerbitzuen prezioen zerrendak erraz ikusteko lekuetan jarriko ditu bezeroek ikusteko moduan.

Tabernaren ondoan kokatuta dagoen jubilatuen elkarteko lokalaren giltza izango du esleipendunak uneoro tabernan, beharrezkoa suertatu ezkero, jubilatuen elkarteko lokaleko irekiera-itxierak kudeatzeko.

Debekatua dago adingabeei alkoholdun edariak eta tabakoa saltzea edo zerbitzatzea.

Era berean, debekatuta dago instalazioetan txanpon bidezko joko-makinak, ausazko joko-makinak edo apustu-jardueretarako makinak instalatzea.

Edozein ezbehar gertatu ezkero esleipendunaren ardura izango da Udala lehenbailehen jakinaren gainean jartzea.

Esleipendunak finkoak ez diren elementuak jarri ahal izango ditu une zehatzetan taberna bezala ustiatzeko, beti ere aurretiazko eskaera egin eta udalak onartzen badu.

Esleipenduna egunero arduratuko da zerbitzurako erabiltzen diren terraza, kartel eta bestelako edozein elementu lanaldi hasieran jartzeaz eta hura amaitzean kendu eta txukun uzteaz. Terrazako mahai eta aulkiak egunero jaso beharko ditu.

Dagokion kexa liburua izan beharko du.

19. Jarduera sozial eta kulturalekiko lankidetza

Goñati tabernaren izaera soziala dela eta esleipendunak lankidetza-jarrera aktiboa izango du udalak, udal-elkarteek edo udal-jardueretan parte hartzen duten gainerako eragileek sustatutako jarduera kultural, sozial edo komunitarioekin.

Jubilatuen elkarteari lotutako espazioetan eta jardueretan kolektibo horren beharrizanek lehentasuna izango dute.

Taberna-kafetegiaren instalazioetan formatu txikiko kultura-, gizarte- edo komunitate-jarduerak egin ahal izango dira, hala nola hitzaldiak, proiekzioak, monologoak eta

Baliozkotze Kod.: 723JG45L464HEHQYZHRCNP936
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 13

antzekoak, beti ere udalarekin koordinatuta eta honen adostasunarekin eta instalazioen erabilera arruntaz, bizikidetza (zarata eza) eta segurtasuna bermatuz.

Esleipendunak berak ere antolatu ahal izango ditu antzeko ekitaldiak, beti ere, udalaren adostasunarekin.

20. Zerbitzuaren jarraipena

Udalak kontratuaren exekuzioaren eta emandako zerbitzuaren jarraipena egin ahal izango du, instalazioen kontserbazio-egoera, zerbitzuaren kalitate, hizkuntza-baldintzen betetzea eta plegu honetan ezarritako gainerako baldintzen betetzea egiaztatzeko.

Horretarako, udalak egoki iritzitako ikuskapenak, egiaztapenak eta jarraipen bilerak egin ahal izango ditu esleipendunarekin.

Azken xedapena

Preskripzio Teknikoen Plegu honetan arautu gabeko alderdi juridiko, ekonomiko eta administratibo guztiak dagokion Administrazio Klausula Berezien Pleguan ezarritakoen arabera arautuko dira.

Baliozkotze Kod.: 723JG45L464HEHQYZHRCNP936
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 13

ESPEDIENTEA 351/2026

ERANSKINA: ONDASUNEN GUTXIGORA BEHERAKO INBENTARIOA

MENDAROKO GOÑATI TABERNA-KAFETEGIA

1. ALTZARIAK ETA EKIPAMENDUA

Zkia.	Ondasuna / Deskribapena	Kopurua
1	Barrualderako mahaia (790 x 790 mm), aluminio lakatu egitura eta fenoliko konpaktuzko gainazala.	9
2	Kanporako mahaia (690 x 690 mm), aluminio lakatu egitura eta fenoliko konpaktuzko gainazala.	3
4	Taberna eta jantokirako mahai altua (60 x 60 cm), erdialdeko oina eta gainazal fenolikoa.	2
5	Barrualde zein kanporako aulkia, polipropileno injektatuzkoa (besoekin).	42
7	Taburete / aulki altua, polipropileno injektatuzkoa besoekin.	11
8	Sofa jarraitua, neurri osoak: 3200 x 800 mm.	1
12	, Aterki ontzia, altzairuzkoa.	1
13	Birziklatzeko zakarrontzia (bi gorputzekoa), 600 x 300 x 700 mm.	2
14	Hormako esekitokia, 8 iltzerekin.	3
16	2 metroko erraila koadroak zintzilikatzeko, bi eusteko kable barne.	8
21	Baxera, baldintza orrian zehaztutako beharren arabera.	1
22	Neurrirako arasa, jantoki eremurako.	1
24	Biltegiko apalategia (1000 x 500 x 2070 mm), 150 kg-ko erresistentzia apal bakoitzeko eta 5 karga-maila.	1
25	Bi modulutako aldagela-takila multzoa, ate osoena, 635 x 500 x 1780 mm.	1
26	Komuneko ispilua (450 x 600 mm).	2
27	Xaboi likidoaren banatzaile bertikala.	2
28	Komuneko eskubila.	3
29	Komuneko paper banatzailea.	3
30	Esku-oihal / Paper-toaila banatzailea.	2
31	Pedaldun kubeta higienikoa 5 L.	5
34	4 estore jantoki eremurako, ehun teknikozko bilgarriak %3ko irekierarekin.	1
36	Toldoa: 4500 x 3100 mm.	1

Baliozkotze Kod.: 723JG45L464HEHQYZHRCNP936
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 13

2. TABERNA ETA JANTOKIKO TRESNERIA / MENAJEA

Zkia.	Ondasuna / Deskribapena	Kopurua
37	Plater laua 26 cm, zuria.	48
38	Plater sakona 22 cm, zuria.	48
39	Postre platera 20 cm, zuria.	60
40	Mahai-koilara.	48
41	Mahai-sardeska.	48
42	Haragi-labana	48
43	Moka koilaratxoa.	48
44	Kafeko koilara.	36
45	Lunch sardeska.	36
46	Lunch labana.	24
47	Plater-estalki kanpaina 31 cm.	3
48	Pizza platera 31 cm.	4
49	Edalontzi pilagarria 29 cl.	60
50	Ardo kopa 44 cl .	60
51	Tubo edalontzia 31.	24
52	Likore edalontzi altua 6.	24
53	Ur edalontzi baxua 30.	12
54	Beirazko arasa zuzena 1 m..	2
55	Salda katilu zuria.	24
56	Arbelezko erretilua 32,5 x 17,5.	10
57	Erretilua 30 x 15 zuria.	6
58	Kopa-rack kromatua hormarako.	5
59	Kazola altua 36 x 22.	2
60	Marmita 36 x 36.	1
61	Paella-ontzia 36 x 7.	1
62	Kazo zuzen altua 20 x 13.	1
63	Pureak egitekoa 26 cm.	1

Baliozkotze Kod.: 723JG45L464HEHQYZHRCNP936
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 13

64	Gazta-ehogailua, plastikozkoa.	1
65	Txinatar iragazkia. 10 cm.	1
66	Zartagin ez-itsaskorra aluminioa 32 cm.	2
67	Zartagin ez-itsaskorra aluminioa 28 cm.	2
68	Zartagin ez-itsaskorra aluminioa 22 cm.	1
69	Bol inox 25.	2
70	Kubeta sakona 44 x 35 cm.	1
71	Kubeta sakona 43 x 28 cm.	2
72	Iragazteko ontzia 38 zuria.	1
73	Burruntzalia 12 cm inox.	1
74	Burruntzalia 10 cm inox.	2
75	Bitsadera 12 cm.	1
76	Eskuzko irabiagailua zuntz-heldulekuarekin 35 cm.	1
77	Iragazki bola-heldulekuduna inox 18 cm aroarekin.	1
78	Armiarma- Bitsadera 14 cm inox.	1
79	Zopa-ontzia oinarekin inox 24 cm.	4
80	Zopa Burruntzalia.	4
81	Azpil obala B/V 45 cm.	1
82	Azpil obala B/V 40 cm.	1
83	Plantxako espatula 12".	1
84	Plantxako espatula 9 cm.	1
85	Espatula 160 mm.	1
86	Gastronorm kubeta SVAS 1/1 altuera 10.	2
87	Gastronorm kubeta SVAS 1/4 altuera 65.	5
88	Polietilenozko ebakitzeko mahaia/ohola 40 x 30 x 2 cm, zuria.	1
89	Polietilenozko ebakitzeko mahaia/ohola 40 x 30 x 2 cm, urdina.	1
90	Polietilenozko ebakitzeko mahaia/ohola 40 x 30 x 2 cm, berdea.	1
91	Polietilenozko ebakitzeko mahaia/ohola 40 x 30 x 2 cm, gorria.	1
92	Tipula-labana 9” forjatua.	1
93	Sukaldaritzako labana 10 cm.	2

Baliozkotze Kod.: 723JG45L464HEHQYZHRCNP936
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 13

94	Harakin labana zabala 250 mm.	1
95	Aizto zorroztailea	1
96	Sukaldaritzako guraizeak inox 25 cm.	1
97	Zuntzezko espatula 50 zuria.	1
98	Zuntzezko espatula 40.	1
99	Haragi platera 29.	24
100	Trituradore / Nahasgailu profesionala XM-22.	1
101	Ontzietarako aro-euskarria inox.	1
102	Xanpainarentzat ontzia.	1
103	Erretilu ez-irristakorra RD. 40 cm.	1
104	Zerbitzari erretilua 40 cm.	1
105	Ogi-saskitxoa obala 23 x 17.	12

3. SEINALETIKA ETA SEINALEZTAPENA

Zkia.	Ondasuna / Deskribapena	Kopurua
106	Formatu handiko 14 irudi, zurezko moldura argidun markoekin (10 unitate 100x70 cm eta 4 unitate 100x130 cm), hotsa xurgatzeko materialarekin,	1
110	Barrualdeko espazioetarako plakak (braille eta erliebez barruko eremuak bereizteko).	6
111	Barra gaineko errotulua.	1

Lekua eta data: _____

Bortatu / Bidalitakoa: _____

Jasoa / Adostasuna: _____

Baliozkotze Kod.: 723JG45L464HEHQYZHRCNP936
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 13